



HEZKUNTZA SAILA  
Unibertsitate eta Ikerketa  
Sailburuordetza  
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko  
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Universidades  
e Investigación  
Dirección de Política y Coordinación  
Universitaria

EBAZPENA, 2018ko urtarrilaren 23koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena; honen bidez, 2017ko irailaren 1etik 2018ko abuztuaren 31ra bitarteko aldirako unibertsitateko Ikasiker lankidetzak beka-eskaeren ebazpena ematen du B Modalitatean (udan zehar).

Hezkuntza sailburuak, 2017ko ekainaren 28ko aginduaren bitartez (2017ko ekainaren 30eko EHAA), 2017ko irailaren 1etik 2018ko abuztuaren 31ra bitarteko aldirako Ikasiker lankidetzak beken deialdia egın zuen, unibertsitateko ikasleentzat. 3.2 artikulua jasotzen du bekaren B Modalitatea: lankidetzak egiteko udan zehar.

Hautaketa-batzordeak, 2018ko urtarrilaren 19an aurkeztutako eskaeren ebazpenerako proposamena aurkeztu egin dio Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariari, unibertsitateko Ikasiker lankidetzak bekarako 2017ko irailaren 1etik 2018ko abuztuaren 31ra bitartekoa B Modalitatean (udan zehar).

Horregatik, aipatutako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

**EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa.-** Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei eta beka lortzeko behar den ordena zenbakia dutenei beka ematea, zenbatekoa: 1.500 €, B Modalitatean (Eranskin I).

**Bigarrena.-** Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskatzaileei beka ukatzea, B Modalitatean (Eranskin II).

**Hirugarrena.-** Interesatuak, gorako errekurtsoa jarri ahal izango dio Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilaren 23a.

**UNIBERTSITATE POLITIKA ETA  
KOORDINAZIOKO ZUZENDARIA**

**Miren Artaraz Miñón**